



Olaia Lekunberri - Olatz Pujana - Irene Ezkurra

Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Aitor Arana	3
Sarrera	4
<i>Bost Ahizpa</i>	
· Kokapena	5
· Gaia	5
· Argumentua	6
· Gertakari nagusiak	7
· Pertsonaiak	9
· Egituraketa	11
· Baliabideak	11
· Iritzia	13
Bibliografia	14
Webgrafia	14

AITOR ARANA

Aitor Arana 1963ko abenduaren 21ean Legazpin jaio zen. Unibertsitatera arteko ikasketak egin eta hamazazpi urterekin idazten hasi zen.

Lehendabiziko liburua hogeita hiru urterekin argitaratu zuenetik, hirurogei liburu baino gehiago kaleratu ditu. Idazlan gehienak haur eta gazte literaturan egin baditu ere helduentzako eleberrigintzan ere badabil. Lau urtez (1983-1987) euskara-irakaslea izan zen, geroago, sei urtez Legazpiko Hots kultur aldizkariko lankide izan zen eta bi urtez arduraduna. Horren ostean, lau urtez (1992-1996) Xut literatur aldizkariko lankide eta arduraduna izan zen eta itzultzailea euskaraz, gaztelaniaz, esperantoz eta kaloeraz.

Gauza horiek guztiak egin eta gero, dialektologia alorreko hizteigilea eta ikasliburugilea izaten jardun zuen eta azkenik, Haranaga liburuak argitaletxeko zuzendaria izan zen. Aranak hainbat obra ospetsu egin ditu bere bizitzan; narrazioak: *Atharratzeko erregina*, *Bervalen gertatuak*, *Gaueko ortzadarra*, *Haize gorria*, *Hiru istorio bortxazko*, *Ipuin entzulea*, *Ipuin ilunak*, *Ipuin lizunak*, *Onan Sexuketan*, *Ezohiko ipuinak* eta *Lehenbiziko ipuinak*; gero hainbat eleberri idatzi ditu: *Historia lazgarria*, *Bost ahizpa* (guk irakurritako liburua eta lantzen ari garena), *Aita-semeak*; eta azkenik saiakera batzuk egin zituen, baina ezinezkoa egin zitzaion argiratzea; BBK-Euskaltzaindia literatura sarien historia.

Lan hauek Aitorrki hainbat sari eskuratzera eraman zuen idazlea; Bilintx (1987), Baporea (1989) R. M. Azkue (1990), Txomin Agirre (1999) (2000), (2002), Toribio Alzaga (2002), Baporea (2002), Liburu gaztea (2002-2003), Vitoria-Gasteiz itzulpen saria. Haur literatura (2003), Donostia Hiriko Kutxa antzerki saria (2006), JUUL saria. A saila (2006), EHGAMen Urrezko Hirukia saria (2006), Baporea (2007), Ignacio Aldecoa (2007), Irun Hiriko Kutxa eleberri saria (2009), Baporea (2010) eta JUUL saria. A saila (2010).



Sarrera

Liburu hau 2003. urtean argitaratu zuen Aitor Aranak, eta ospe handia izan zuen liburu honekin, "Txomin Agirre" saria lortu zuelako. Polizia eleberri klasikoaren gaia aukeratu du egileak, misterioz eta krimenez betea, bertan bost ahizpen aitak, mezu bat bidaltzen die anai-arreba guztiei bere landetxean elkartzeko. Baina lehenengo ezustekoa berak hartuko du, semetzat zeukana emakume bezala azaltzen zaionean. Nolanahi ere, berean jarraituko du aitak, eta narrazioan zehar hainbat hilketa izango dira.

Istoria konkretuki bost ahizpen gainean da, baina gero hainbat pertsonai desberdinek hartuko dute parte kontakizunean zehar eta liburua askoz ere interesgarriagoa eta biziagoa bihurtuko dute, apurka apurka pertsonai gutxiago gelditzen.

3. pertsonan dago idatzita kontaketa hau, narratzaile orojakile batez kontatua, hau da, narratzaileak gertatzen den guztia daki, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, baita gerora zer gertatuko den ere. 178 orrialde ditu 12 kapitulutan banatuta eta ez dauka inolako marrazkirik.

Liburua aitaren etxean zentratua dago, Aizpeberri etxean, aitak mezuan esandako etxe berri eta luxuzkoan. Bost ahizpa liburua gaur egungo garaikoa da, bizitza honetako arazoak gertatzen direlako; bortxakeria eta familien arteko diru kontuen gatazka gogor eta larriak adibidez.

Azken batean liburuan Aitor esanahi bat islatzen saiatzen da; diruak gauza asko eman ahal baditzake ere familien eta anai-arreben harremanak askoz ere garrantzitsuagoak direla diruak sortu ahal dituen gatazkak baino.

Liburua, gaur eguneko istorio guztiak bezala, aurkezpenarekin hasten da, geroago istorioan murgiltzen joaten da, apurka-apurka lehen ekintzak aurkezten hasten dira, liburuaren mamira heldu eta bertan arazo bat gertatzen da. Puntu horretatik aurrera, istorioan dagoen arazoa konpontzen saiatzen dira pertsonaiak eta azkenik istorioaren amaieran sortutako arazoak konpondu egiten dira.

Kokapena

Istoria Aizpuru herritik lau kilometrora dagoen Aizpeberri auzoan kokatzen da, Arabako ipar-mendebaldean, hain zuzen ere. Aizpeberri landetxean baten gertatzen da istorioko zatirik handiena, non bertaraino iristeko errepidea estu samarra den eta mendi artean hainbat gora-behera egin behar diren zelaiz eta pinudiz inguratutako zabalgunera iristeko. Inguruan lau etxe zahar eta eliza txiki bat besterik ez ditu landetxe zaharberri eta isolatuak. Landare exotiko eta zuhaitz handiz betetako lorategia, harresiko atletik etxearen sarreraraino, ez zen oso luzea, baina bai zabala. Lehendakariaren etxea zirudien etxe handi eta dotore hark, kanpotik harriz beteta eta barrutik egurrezko habe luzez beteta zegoenak.

Gaia

Elkarrekin ongi moldatzen ez diren bost ahizpa landetxe handi batean elkartuko dira aitaren oinordekotza jasotzeko asmoz.

Eleberri hau krimenez eta intrigaz beteta dago, makina bat abentura bizitzen dituzte bertako protagonistek eta beste alde batetik, detektibe paperak ere jorratu behar dituzte hiltzailea nor den asmatzeko.

Argumentua

Misterioz jositako istorioa da hau, aspalditik harremanik ez duen familia bat aitak deitua da banan-banan Arabako landetxe batera joateko asteburu pasa. Aitaren bost alabak hara joaten dira (baita ahizpa baten alaba nerabea ere), baina ezin imajina dezakete bertan gertatuko dena. Bost ahizpak Arabako herri galdu bateko landetxe batean elkartuko dira, aitak deituta. Aspaldi luzean ez dute aitaren berririk izan, txiki-txikitatik aitaren eta alaben arteko harremana (eta alaba batzuen artekoa ere bai) zail samarra izan baita. Landetxean, aitak ezusteko galanta emango die: aberats bilakatu da, baina laster hiltzekotan da, gaixotasun sendaezin baten ondorioz, eta bere ondasun guztia igandean bizirik iraungo duen alabari emango diola oinordetzan, baina alaba guztiak hilda badaude aitaren abokatuak eramango du aberastasun osoa.

Orduan, bere buruaz beste egiten du, bere emazte gaixoa bi tiroz hil eta gero, landetxean elkartu den familia guztiaren aurrean eta pixkanaka-pixkanaka aitak nahi bezala alaba guztiak hiltzen doaz asteburua pasa ahala.

Hiltzailea abokatuaren laguna da eta alaba guztiak hiltzen ditu, ahizpa bat eta iloba izan ezik. Baina ahizpa horrek ezin du oinordetza jaso gizon gorputz batean jaio zelako. Bestetik iloba aitonaren alaba dela deskubritzen da eta azkenean dirua ez du abokatuak eramaten, baizik eta izeba-ilobek.

Gertakari nagusiak

Auto txiki batean errepidean aurrera zihoazen Amaia eta Leire ama-alabak. Amaiari bere aitak gutun bat bidali zion zerbait garrantzitsua kontatu behar ziola esanez eta bakarrik etortzeko, baina berak ez zekien bere anaia-arreba guztiek gutun berdina jaso zutela aitarengandik. Bidaia luzea egin ondoren Aizpeberri izeneko landetxe zahar batera iritsi ziren, bertan aita haien zain zegoen. Etxera sartu bezain pronto, Pilar bere ahizparekin topo egin zuen. Orduantxe konturatu ziren bost anai-arrebei bidali ziela gutun berdina.

Apurka-apurka bost ahizpak etxera iristen hasi ziren; Ana eta Garbiñe izan ziren hurrengoak iristen. Anarekin batera bere mutil laguna etorri zen, baina inork ez zekien etxean zegoela ezkutuan sartu zelako. Bost anai-arrebetan azkena iristen Agustina izan zen. Berez gizonezko baten gorputzean jaio zena bera emakume sentiturik eta sexu aldaketa horrek nahikoa harritu zituen gainontzeko ahizpak, neba itxaroten zebiltzalako eta bat-batean ahizpa berri bat agertu zelako. Bost ahizpek batera afaldu eta gero, gau osoan itxaroten ari ziren momentua iritsi zen, aiton-amonak jangelan sartu ziren eta. Gelan sartu zirenean, aitonak bost ahizpei kontatu zien zozketa batean aberats egin zela baina gaixotasun sendaezin bat zuela eta laster hilko zela eta dirutza guztia asteburua etxean igaro ostean bizirik gelditzen zen alabari emango ziola; alabarik bizirik gelditzen ez bazen, ordea, abokatuak jasoko zuela oinordekotza. Hori esan ostean, gurpildun aulkian zegoen amona gaixoa akabatu eta bere buruaz beste egin zuen. Denok aho zabalik geratu ziren, ez zuten ezer ulertzen, baina gauza bakarrak konturatu ziren, Anastasio (ordura arte zerbitzaria besterik ez zena uste zutena eta orduan abokatu ere bazela konturatu zirena) korrika bizian atera zela etxetik. Bera harrapatzen saiatu ziren, baina ez zuen ezertarako balio izan, urrunegi baitzegoen. Ohera joatea erabaki zuten.

Hurrengo goizean zerbitzaria hilda aurkitu zuten sukaldean. Inork ez zekien zer gertatu zen ezta nork hil zuen ere ez, eta lasaitzea besterik ez zeukaten. Hurrengo Ana izan zen, denek uste zuten Pilar izan zela hiltzailea, berak hil zuela bere ahizpa bikia, baina ez zen horrela izan. Garbiñek ezin zuen gehiago

jasan eta etxeko azkeneko pisura joatea erabaki zuen, bertan leihoa ireki eta bertatik bota zen bere buruaz beste eginez. Orduan Pilarrek Leireri bere benetako ama Garbiñe zela aitortu zion, eta ez Amaia, Garbiñek ez zuenez alabarik izan nahi Amaiak zaindu zuela urte luze guzti horietan zehar. Hori guztia gertatu eta gero, Pilar bere gelara lo egiteko asmotan zegoela, hiltzaileak momentu hori aprobetxatu zuen bikietan falta zena hiltzeko.

Leirek, Amaiak eta Agustinak hiltzaile bat zegoela konturatzean etxetik ihes egitea erabaki zuten. Etxetik atera zirenean konturatu ziren gizon bat etxean zegoela. Autoan bizkor sartu eta martxan jarri zuten, herrira joateko bidea moztuta zegoenez aizpeako auzoan ezkutatzea erabaki zuten. Gizonak berdina egin zuen eta Amaia, Leire eta Agustina jarraitzen hasi zen. Ordu bat geroago Aizpea auzora iritsi ziren, eta elizako gela batean ezkutatzea erabaki zuten bi ahizpek eta Leirek.

Gizonak Amaiaren autoa ikusi zuen aparkatuta, orduan berak berdina egin zuen eta beraien bila joan zen, baina lehendabizi Amaiaren autoko gurrupilak zulatu zituen. Elizako atea irekita ikusi zuen eta bertara sartzea erabaki zuen. Gelaz gela begiratzen hasi zen, eta bat-batean Amaia ikusi zuen. Pistola hartu eta tiro egin zuen, Agustina bere atzean ezkutatu zegoenez hiltzailea jipoitu egin zuen konorterik gabe utzi arte. Eskuak eta hankak soka batez lotu eta Amaiarengana joan zen. Lurrean zegoen, etzanda, hilda, Amaiarengatik ezer egin ezin zuela ikusita Leire zegoen ezkutalekura joan zen, eta gertatu zen guztia kontatu zion. Gizonaren giltzak hartu eta bere aitaren etxera joan ziren hor gelditu baitziren dirua emango zioten pertsonarekin.

Etxera iristean Anastasio hor zegoen beraien zain. Bost ahizpetatik Agustina bakarrik gelditzen zen, baina literalki gizonetzko gorputza zuenez ezin zuen ahizpa batentazako zen oinordetza jaso. Baina, orduantxe, Agustinak Leireri aitonaren semea zela esan zuen, Garbiñe gaztea zenean bortxatu egin baitzuen eta haurdun utzi. Leire eta Anastasio aho zabalik geratu ziren eta arrazoia zuela jakitean Leireri diru guztia eman eta lasterka hasi zen Aizpea auzoraino. Bertan bere laguna zegoen eliza barruan, Anastasioak kontratatu zuen gizona ahizpa guztiak hiltzeko Mikel zen, Anaren ustezko mutil-laguna, baina dena txarto atera zitzairen. Handik aurrera Agustina eta Leire pozik bizi izan ziren, eta zeukaten diru

mordoarekin Agustinarekin sexu aldaketarako operazioa ordaintzea egin zuten lehendabizi.

Pertsonaiak

Pertsonaia nagusiak hauek dira:

Leire. Ustez Amaiaren alaba da. Hamabost urteko neskatoa da. Izeba guztietatik bakarra ezagutzen duena Garbiñe da. Oso neska azkarra da eta Bilbon bizi da Amaiarekin. Bere benetako aita nor den jakin nahi du, eta etxean dagoen bitartean berak ez zekien gauzez konturatzen da.

Amaia. Bost ahizpetako bat da. Ustez Leireren ama da. Bilbon bizi da bere alaba Leirerekin. Hogeita hamahiru urte ditu. Ahizpa guztien artean, Garbiñerekin da harreman gehien daukana. Agustinarekin ere harreman ona du, baina bikiekin, Pilar eta Amaiarekin harreman gutxiago du txikitako arazoengatik.

Pilar. Bost ahizpetako bat da. Berrogeita hiru urte inguruko emakumea da. Anaren ahizpa bikia da eta bost ahizpetatik berarekin da harreman gehien duena. Beste ahizpekin ez da ondo eramaten, txikitari oso txarto portatu zelako beraiekin. Ez zuen bere iloba Leire ezagutzen etxe horretara joan aurretik.

Garbiñe. Bost ahizpetako bat. Ustez Leireren izeko da. Izeko guztietatik bera zen Leire ezagutzen zuen bakarra. Bost ahizpetatik Amaiarekin du harreman gehien, behar izan duen guztietan pila bat lagundu diolako. Agustinarekin ere oso ondo konpontzen da, baina bikiekin, Ana eta Pilarrekin harreman gutxiago du.

Ana. Bost ahizpetako bat da. Andre heldua da. Pilarren ahizpa bikia da eta berarekin da harreman gehien duena. Beste ahizpekin ez da ondo eramaten, txikitari oso txarto portatu zelako beraiekin. Ez zuen bere iloba Leire ezagutzen etxe horretara joan aurretik.

Agustina. Bost ahizpetako bat da. Berez gizonezko baten gorputzean jaio zen, baina emakumea zela sentitzen zenez, emakumea bazen bezela jansten hasi zen. Arrazoi horregatik izena ere aldatu zuen, lehen Agustin deitzen zen. Berrogei urte bete gabe zituen emakume gazte bat da, eta ile zuri kizkurra dauka. Ez zuen bere iloba Leire ezagutzen etxe horretara joan aurretik.

Mikel. Ustez Anaren mutil laguna. Etxean ezkutuan sartzen da, aitonak gutunean argi utzi zuelako alaba guztiak bakarrik etorri behar zirela. Inork ikusi gabe etxean sartzen da, eta Anaren gelan gordetzen da hasieran. Mutil jatorra eta ona ematen duen arren gauza txar asko egiten ditu istorioan zehar.

Gainerako pertsonaiak hauek dira:

Areitioaurtena jauna (aitona). Bere alabak gazteak zirenean oso txarto portatzen zen beraiekin, batez ere Amaia eta Garbiñerekin. Mozkortuta zegoen bakoitzean bere emaztea jipoitzen zuen. Ez zirudien munduko gizonik zoriontsuena zenik. Baxu samarra zen, burusoila eta gizen samarra.

Amona. Bere gizonak jipoitu egiten zuen egunero eta etxe psikriatiko batean sartu egin dute burutik txarto zegoelako baina oso ama ona zen eta gizonak hil egiten du. Argal-argala zen, guztiz zurbil eta ilea zuri-zuria zeukan. Bihozgabetua zirudien guztiz edo, zehatzago esanda, deabruzko makina baten bidez arima lapurtu baliote bezala.

Tabernari andrea. Emakume lodia eta berritsua da. Amaia eta Leirek Areitioaurtena jaunaren etxera nola joaten zen ez zekitenez, Aizpuru herriko taberna batera sartu ziren, eta bertan ezagutu zuten tabernari andrea.

Anastasio. Lehenengo landetxeko etxezainaren lanak egiten ditu, baina Aireitioaurtenaren jaunaren abokatua da egiatan. Oso gaiztoa da, eta oso txarto portatzen da bost ahizpekin eta Leirerekin.

Nati. Areitioaurtena jaunaren etxeko neskamea da. Hirurogei urte inguruko andre argala da, ile beltzekoa eta alarguna. Mutua zen eta amantal zuriko eta soineko marradun zuri-urdina eramaten zuen beti jantzita.

Egituraketa

Liburu honen egituraketa lineala da. Hau da, egituraketa kronologikoa erabiltzen da istorioan. Narratzaileak hirugarren pertsonan kontatzen du istorioa, eta orainaldian narratzen dira gertaerak. Aipatu beharra dago, liburua 12 kapitulutan banaturik dagoela, 178 orrialdetan, denak zenbaki bidez bereizitakoak.

Baliabideak

Idazleek hizkera literarioa egunero hizkera arruntetik bereizteko erabiltzen dituzte.

Testuei adierrazgarritasuna eta edertasuna emateko erabiltzen dira.

Deskribapena

Pertsona, leku, izaera edo materiak bat nolakoa den azaldu egiten du adjektiboak erabiliz.

“Mendi zabalgunen batena zegoen berau; mendilepo baten itxura zioten ama – alabek bi mendi elkartzen zituen lur puska bat baliz bezala” 27

“Neskamea hirurogei urte inguruko andre argala zen, ile beltzekoa eta alarguna” 53

“Oso kaskarina izan da beti, eta horrela bukatu du bukatu duen moduan: ama ezkongabea da, dakizuenez, hemezortzi urte zituenetik.” 29

“Gora Iritsi aurretik, itxura kaskarra samarreko harrizko zubi bat igaro behar da... azpitik burdinez ongi gogortuta dago.” 22

Elkarrizketa

Bi pertsona edo gehiagok hartzen dute parte, eta bertan beraien ideak azaldu edo hitz egiten dute.

“—Laburtuz —esan zuen Leirek orain irribarrez—: kontu garrantzitsu hau ez didazula kontatu, izeba Garbiñeri hala hitz eman zeniolako, ezta?”

—Hori da —Amaiak ere irribarre egin zuen.

—Bueno, baina orain bera hilik dago eta aurrerantzean ez didazu ezer gehiago ezkutatuko, konforme?

—Konforme —onartu zuen amak, eta elkar besarkatu zuten biek.” 138

Barne-bakarrizketa

Pertsona bakoitzak beraren buruan bakarrik hitz egiten dutenean gertatzen da. Nobela 3.pertsonan idatzita dago eta narratzaile orojakileak kontatzen ditu pertsonaien sentimendu eta iritzi guztiak beraz ez dago barne-bakarrizketarik.

Metaforak

Konparazioa bi elementu konparatzean datza; metafora, ordea, elementuak identifikatzean datza. Sarritan “izan” aditza azaltzen da. Beste batzuetan, irudizko elementua baino izendatzen da.

Ez dugu metafora asko topatu, kontakizun sinplea delako eta idazleak ez duelako baliabide estilistiko asko erabiltzen, hizkera sinplea eta irakurtzeko erraza da.

“Behean, egongelan, telebistak itotzerik izan ez zuen zarata isila entzun zuten Pilarrek eta Leirek.” 123

Konparazioak

Bi elementu konparatzeko erabiltzen da, itxura edo antzekoa dutelako. Normalean, “bezala”, “bezain”, “antzera” edota “iruditu” esan nahi duten aditzak erabiltzen dira.

“Balantza batean pisatzeko moduko isiltasun astuna sortu zen (isiltasun astuna).

“...oinak lurrean josita gelditu zen, zapatilak ez titan itsatsita geratu balira bezala -
-Oilorik gabeko oilategia bezain huts geratu zitzaaien adimena...” 111

Esamoldeak

Zeozer adierazi nahian sortutako esaldi eginak dira esamoldeak.

“Ziurtzat jo: ziurra dela sinestu.” 83

“Kirioak dantzan: guztiz izaturik.” 154

Onomatopeiak

Onomatopeiak esanahien eta soinuen arteko lotura zuzena erakusten duten hitzak dira.

“Trumoi handi bat entzun zen bat-batean eta etxeko argiak dar-dar egin zuen.” 68

“Bat-batean norbaitek bi aldiz jo zuen egongelako atea, bortitz, oso bortitz jo ere.

Danba! Danba!” 152

“...hiru emakumeek oihu egin zuten kirioak dantzan: Aaaa!!!” 154

Iritzia

Nobela hau abentura handi baten oinarritzen da, hasieran apur bat astuna izan badaiteke ere, 3. kapitulutik aurrera ezin da irakurtzeari utzi idazleak irakurlea istorioan sartzea lortzen du eta bete-betean. Hainbeste datuz ornitutako deskribapenak benetan lagungarriak dira istorioan kokatzeko:

Etxea barrutik benetan zen kanpotik ikustean izango zela pentsa zitekeen bezalakoxea. Ongi argiztaturik zegoen eta zurezko habedun sabaia aski altua zen. Zoruak eta atea ere, goiko solairura igotzeko eskailerak bezalaxe, zurezkoak ziren, eta oso ongi ematen zioten, garbi eta distiratsu, etxearen harrizko izateari. Altzariak ere zurezkoak eta larruzkoak ziren eta oso modu egokian kokaturik zeuden, hau da, ez zirudien gehiegi edo gutxiegi zeudenik.

Marrazkirik ere ez da behar pertsonaia bat imajinatzen saiatzeko:

Neskamea hirurogei urte inguruko andre argala zen, ile beltzekoa eta alarguna. Mutua zen eta Nati zuen izena. Amantal zuria eta soineko marradun zuri-urdina zeramatzan jantzita. Isil-isilik ari zen afariaren hasierako zizka mizkak zerbitzatzen.

Intrigaz beteriko istorioa da pertsonaiak pixkanaka-pixkanaka hiltzen baitdoaz eta azkeneraino bizirik nor iritsiko den jakin nahi da uneoro. Ezjakin horrek liburua irakurtzen segi beharra sorrarazten du, horrek guztiak nobela irakurterreza eta arina eginez era berean, gainera, elkarrizketa asko dituenez pertsonaien artean konturatu baino lehen amaitzen denetakoa da.

Eleberri honek oso gai korapilatsua du, hasiera batean harrapatzea kostatzen dena hainbat pertsonaia desberdin dituelako baina istorioan aurrera joan ahala zati guztiak lotzen dituena. Bertako gertaera nagusi gehienak oso labur kontatzen ditu eta deskribapenei ematen die garrantzi gehien, horregatik, nobela ez da oso luzea geratzen diren abentura guztiak kontuan hartuta.

Zatirik aspergarriena hasiera izan daiteke beharbada, lekua deskribatzen hainbat orrialde erabiltzen dituelako idazleak eta ez da gauza handirik gertatzen, nobela gehienetan bezala gutxi gora-behera. Gero eta orri kopuru gehiago irakurri gero eta interesgarriagoa bihurtzen da eleberria, protagonisten artean loturak aurkitzen direnean eta misterioa argitzetik gero eta hurbilago daudenean. Amaiera guztiz ezustekoa da, inork espero ez dezakeena, irakurlea aho zabalik uzten duten horietakoa; oinordekorik gelditzen ez dela uste denean sekulakoa kontatzen du Agustinak, azken zatia guztiz aldatzen duena.

Pertsonaia interesgarriena Leire izan da egoera horretan guztiz beldurturik egonda ere beti lasai eta irribarretsu agertzen delako besteak ez daitezten izutu, baita bere bizitza momentu batetik bestera guztiz aldatzen denean ere irribarretsu agertzen delako, istorioa korapilatu gabe. Liburu hau ez da batere aspergarria izan eta ziztu bizian irakur daiteke, adin guztietako jendeak irakur dezake, abenturazalea den eta irakurtzea gustatzen zaion edonork.

Bibliografia

- Elhuyar hiztegia
- Euskal Hiztegi Entziklopedikoa
- Eskola hiztegia. Adorez

Webgrafia

- http://eu.wikipedia.org/wiki/Aitor_Arana
- <http://www.idazleak.eus/espanol/escritores/aitor-arana-luzuriaga?h=A&p=3>
- https://www.google.es/search?q=aitor+arana&rlz=1C1RNNN_enES371&espv=2&biw=1280&bih=687&tbm=isch&tbo=u&source=univ&sa=X&ei=5dBPVK2GIJTjapHegggM&ved=0CCAQsAQ
- <http://www.compartelibros.com/autor/aitor-arana/1>
- <http://hiztegiak.elhuyar.org/>
- <http://hiztegia.net/>
- <http://elhuyar.org/>
- <http://euskaljakintza.com/kontsultategia/antolatzaileak-2/>
- <http://atalak.net/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>